

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK KALKULATZEA	IRAUPENA	30
		Baldintzatua	
Kodea	UF0342		
Lanbide-arloa	ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA		
Lanbide-eremua	Administrazioa eta ikuskapena		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Giza baliabideen kudeaketa integratua	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Lan-harremanen kudeaketa administratiboa.	Iraupena	210
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Laneko kontratazioa		60
	Soldata ordainsariak, kotizazioa eta zergabilketa	Iraupena	90
	Giza baliabideak administratzeko aplikazio informatikoak		30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0237_3 gaitasun-ataleko LB4 lanbide-burutzapenarekin, gorabeheri eta ezintasunagatik Gizarte Segurantzaren prestazioen ordainketa eskuordetuari dagokienez.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Gizarte Segurantzako sisteman aurreikusten diren prestazio-motak aplikatzea, ezbehar-egoera edo premia-egoera zehatzak aurreikusteko, ordaintzeko edo gainditzeko.

EI1.1 Gizarte Segurantzaren babes-ekintza eta aipagai dituen prestazio-motak zertan dautzan interpretatzea.

EI1.2 Gizarte Segurantzak titular edota onuradunen premia-egoera bakoitzerako —pertsonala edo familiara—, duen prestazio-mota erlazionatzea eta horretarako, kasu zehatz bakoitzean prestazio hori kalkulatzeko erabilitako errenta-erreferenteak identifikatzea.

EI1.3 Kasu zehatz bakoitzerako Gizarte Segurantzaren babes-ekintzaren ondorioz sortzen diren asistentziatzko prestazioak eta prestazio ekonomikoak, hurrenez hurren, identifikatzea eta kalkulatzea.

EI1.4 Langilearen lanerako ezintasunarekin lotutako gorabeheren segurtasun- eta kontrol-prozedurak aplikatzea, ezarritako arauak eta indarrean den lan-araudia kontuan izanda.

EI1.5 Aldi baterako ezintasunagatik gorabeheri buruzko dokumentuak behar bezala betetzea, eta kasu bakoitzean dauden baliabide konbentzional, informatiko edota elektronikoen bidez erregistratzea eta tramitatzea.

EI1.6 Aldi baterako ezintasun-egoerengatik sortzen diren gorabeherak dagozkien, sail interesatuei eta langileak ordezkatzeko organoei zehatz, argi eta azkar jakinaraztea.

EI1.7 Ondorio guztietarako (asistentziarako eta ekonomikorako) kasu bakoitzean dagozkion aldi baterako ezintasunak Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileen aurrean tramitatzea, indarrean den araudiaren arabera.

EI1.8 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan egoera batean, ezintasun iraunkorrak eta baliaezintasun gabeko lesio iraunkorrak bereiztea, eta kasu bakoitzari dagokion prestazioaren zenbatekoa kalkulatzea.

EI1.9 Heriotza eta biziraupenagatik prestazioekin lotutako Gizarte Segurantzaren babes-ekintzari buruzko kasu batean:

- Prestazioen onuradunak identifikatzea.
- Onuradun bakoitzari dagokion prestazioaren zenbatekoa kalkulatzea.

EI1.10 Erretiroari buruzko kasu praktikoa batean:

- Zer erretiro-mota den zehaztea.
- Erretiro-pentsioaren zenbatekoa kalkulatzea, pensioaren titularra zer egoeratan dagoen eta gertaera eragilea zer egunetan gertatzen den kontuan izanda.

EI1.11 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan langabezia-prestazioari buruzko kasu batean:

- Prestazioa garaiz eta behar bezala eskatzeko epea zehaztea.
- Prestazioaren zenbatekoa kalkulatzea.
- Prestazioaren iraupena zehaztea, indarrean den araudia kontuan izanda.
- Eskubidea azkentzeko kausak eta ondorioak aipatzea.

Edukiak

1. Gizarte Segurantzaren babes-ekintza:

- Babes-ekintza motak.
 - Osasun-laguntza.
 - Berrito lanbideratzea.
 - Ezintasun, heriotza edo biziraupenagatik prestazioak.

- Bestelako familia-prestazioak.
- Erreferentziako errentak prestazio batzuk kalkulatzeko.
 - Eragin Anitzeko Errenta Adierazle Publikoa (IPREM).
 - Lanbide arteko gutxieneko soldata (LGS).
- Osasun-laguntza.
 - Erregimen orokorrean.
 - Erregimen berezietan.
 - Europako joan-etorrietan (Europako osasun-txartela).
- Prestazio ekonomiko edo asistentziazko prestazio-motak.
 - Aldi baterako ezintasuna.
 - Haurdunaldiko eta edoskitzaroko arriskua.
 - Amatasuna.
 - Aitatasuna.
 - Ezintasun iraunkorra.
 - Baliaezintasun gabeko lesio iraunkorrak.
 - Erretiroa.
 - Zahartzaro eta baliaezintasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioak (SOVI).
 - Heriotza eta biziraupena.
 - Kalte-ordain berezia oroharreko prezioan, lan-istripuko eta gaixotasun profesionaleko kasuetan.
 - Familia-prestazioak.
 - Ekintza terroristengatiko prestazioak.
 - Eskola-asegurua.
 - Langabezia-prestazioak (SPEE).
 - Bestelako prestazioak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0341 Laneko kontratazioa.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Giza baliabideen kudeaketa integratua